

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LANTZIEGOKO UDALA

#### Jarduera baimenaren espedientea Enrique Jalón Ayalaren upeltegiarentzat

Jendaurrean jartzen da ondoren aipatzen den jarduerari Alkatetzaren baimena emateko espedientea, otsailaren 27ko 3/1998 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babestekoak, 58. artikularen 1. eta 2. paragrafoetan xedatutako ondorioetarako; lege hori aldatu egin zen apirilaren 23ko 7/2012 Legearen bitartez, zeinak hainbat lege egokitzen baititu barne merkatuko zerbitzuei buruzko abenduaren 12ko 2006/123/EB Zuzentaraura. Eskatzailea Enrique Jalón Ayala da, ardoa egin, bildu eta botilaratzeko upeltegia zabaltzeko helbide honetan: Lantziego herrian (Araba), Binasperiko La Fuente kalea 31, 5 poligonoko 13 lurzatia.

Ondorioz, espediente hori jendaurrean jartzen da hamabost egun baliodunez, ediktu hau argitaratu eta hamabost egun baliodunez, jarduera hori ezartzeak nolabaiteko kaltea sortzen diola irizten dionak egoki jotzen dituen alegazioak formulatu ahal izan ditzan, alkateari zuzendutako idazkia udal honen erregistro orokorrean aurkeztuta.

Aipatutako espedientea udal honetako idazkaritzan kontsulta daiteke.

Lantziego, 2020ko ekainaren 3a

*Alkatea*

*M. ITZIAR DE ÁLAVA MARTÍNEZ DE ICAYA*